

Telefonoz



- Trriin! Trriin! Trriin!
- Nor da? - Anitak hartzen du telefonoa.
- Ha! Ha! Ha! Ha!... Hi! Hi! Hi!...
- Nor da sorgin batek bezala irri egiten duen hori?
- Badakizu zergatik sorgin batek bezala irri egiten dudan? 5
- Ez! Zergatik? - galdetzen du Anitak.
- Sorgina naizelako, egiazko sorgina! Hi! Hi! ... Ha! Ha! Ha!...
- Eta zer nahi duzu? Zergatik deitzen nauzu?
- Ni, Sorgintxu naiz. Ene harpe zilotik deitzen zaitut.
- Aizu, Sorgintxu, eta nolaz nauzu telefonoz deitzen? Zure harpe 10 ziloan telefonorik ez dukezu...
- Bai! Bai! Nik ezkerreko zangoaren azpian, badut telefono bat gordea. Aztalean dauzkat zenbakiak. Behatz handitik hitz egiten dut eta behatz ttipitik entzuten. Gaur, zure laguntzaren beharra dut eta hortako deitzen zaitut. 15

- Zu ene laguntzaren beharrean zarela? – galdegin zuen Anitak harriturik.
- Bai, Anita, bai! Gau honetan, lo nintzelarik, norbaitek erratza ebatsi dit. Zer egingen dut nik orain erratzik gabe? Sorginek beharrezkoa dute erratza.
- 20 – Aizu, Sorgintxu! Nik beste erratz bat erosiko dizut.
- Milesker, Anita! Hori bera nahi nuen. Erratz berri bat nahi nuen. Zer lagun ona zaren, Anita!
- Baina nora eraman behar dut erratz berri hori? – arranguratu zen Anita.
- 25 – Elizaren ondoan, telefono-kabina bat ikusiko duzu. Ni han egonen naiz zure beha. Arratseko bederatzieta han izanen nauzu.
- Ongi! Bai! Ulertu dut. Etorriko naiz arratseko bederatzieta, zuk erran tokira.
- 30 – Milesker, Anita laguna! Zu zara munduko neskarik pollitena. Laster arte. Musu bat egiten dizut.
- Klask! Moztu zuen elkarrizketa. Anita bederatziak laurden gutitan etxetik atera zen. Saltokira joan zen; erratza erosi eta telefono-kabinara buruz lasterka abiatu.
- 35 Hitzartu lekura heldu zen. Han, sorginik ez... Nehor, salbu... Laida, karkailaka irriz ari.
- Anitaren laguna da Laida.
- Ha, ha, ha! Zein erratz ederra erosi diozun Sorgintxori!
- Orduan Anitak dena ulertu zuen. Laidak zuen Anita deitu, sorgina zela erranez eta Anitak denak sinetsi.
- 40 – Ez dakizu zein den egungo eguna? – galdegin zion Laidak. Egundapirilaren lehena dugu, Anita! Ahantzia zenuen, ala, egundapirilaren erraitea haizu dela?
- Bi lagunak irriz hasi ziren...

Elkar argitaletxeko *Zipristin 2* liburutik egokitua.


① IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Non gordetzen da Sorgintxu ?
- Zer behar du Anitarengandik ?
- Zergatik erratza beharrezkoa zaio sorginari ?
- Erratza non utzi behar du Anitak ?
- Zertarik ageri da Anita lagun ona dela ?
- Azkenean, nor da Sorgintxu ?
- Zer gertatzen da apirilaren lehen egunean ?
- Istorio hau atsegingarria zaizu ala beldurgarria ?
- Ipuin honi beste izenburu bat asma iezaiozu.

② HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

- Eskua eta zangoa marraz itzazu eta izenak leku egokian eman :

**erhi nagia, erhi nagusia, erhi erakuslea, erhi tipia,
erhi pototsa/behatza, aztala, aztal-beharria/orkatila**



- Anita eta Laida telefonoan dira. Zer erraiten diote elkarri ? Irakurgaitik bi erranaldi har itzazu eta biñetetan kopia.

